



Lau eguneko egitarauaz gozatzeko, Sagastieder plazako karparen azpian egingo dituzte jarduera gehienak. **BEÑAT PARRA**

Intxaur jaiez gozatzeko egun bat gehiago izango dute auzotarrek

Ekainaren 26an hasi eta 29ra bitarte luzatuko dituzte Intxaur jaiak. Hau da, estreinakoz, lau eguneko egitaraua izango dute. Halere, biharko bigarren Intxaur Krosarekin hasiko dira auzoa girotzen eta intxaurrak kraskatzen.

✎ Inaxio Esnaola Aranzadi

Prest dute intxaur kraskagailua, oraindik astebete falta den arren. Intxaur jaiak ospatzeko gogotsu daude auzotarrak, eta, aurten, egun bat gehiago izango dute festez gozatzeko. Izan ere, ekainaren 26tik 29ra bitarte izango dira. Estreinako aldiz lau eguneko egitaraua prestatu du jai batzordeak. «Martxa hartzea kostatu zitzaigun

arren, inoiz baino hobeto moldatu gara jaiak antolatzeke. Duela hiru urte gazte asko sartu ziren jai batzordean, eta sentsazio zein giro onarekin prestatu ditugu aurtengo jaiak», aitortu du Manex Mendiburu jai batzordeko kideak.

Azken urteotan Intxaur jaiak izandako harrera onari esker, hiru egunetik laura pasatzeko erabakia hartu

dute. Hori da berritasun esanguratsuena, baina beste nobedade batzuk ere badirela dio Mendiburuk: «Txararak eta elektrotxararak egunero izango ditugu, giro polita jartzen dutelako. Gainera, *karrookea* berreskuratuko dugu lehen egunean. Duela bi urte egin genuen lehen aldiz, eta iaz faltan bota zuen jendeak». Horrekin batera, petanka txapelketaren finala programatu dute, auzoko adineko pertsonen gehien estimatzen duten jarduera. «Intxaurrondon bi petanka gune daude, eta adineko asko aritzen dira egunero jokatzeko. Gurean ere lekua izango dute aurten», adierazi du Mendiburuk.

Sagardo dastaketa

Egitarauan azken urteotan txertatu dituzten jarduera berriei jarraipena emango diete. Horietako bat da sagardo dastaketa, pasa den urtean aurrenekoz egin zutena. «Harrera oso ona izan zuen, eta argi ikusi genuen aurten errepikatu behar genuela», nabarmendu du Mendiburuk. Mozo-egunari ere erreparatu dio, sare

sozialen bidez egindako inkestak oihartzun polita izan duelako: «Jaie-tako lehen egunean egingo dugu mozorro eguna. Gure Instagram kontuan inkestatxo bat egin genuen gaia zehazteko. Lau aukera jarri genituen, eta gehiengoak filmetan oinarrituriko mozorroen alde egin zuen. Ikustekoa izango da ekainaren 26ko mozorro eguna».

Intxaur jaietako batzordea soilik gazteek osaturikoa den arren, urtez urte adin guztietara iristeko asmoa berretsi dute aurten. «Gure helbu-rua da haurrentzako, gazteentzako, helduentzako eta adinekoentzako jarduerak antolatzea», dio Mendibu-

Egunero alaituko dute auzoa elektrotxarangek eta txarangek, eta, lehen aldiz petanka txapelketaren finala egingo dute

ruk. Adinekoentzako petanka txapelketaz gain, hurrei begira jarri dira. «Haurrentzako jolasak hiru egunetan programatu ditugu. Iaz, soilik ostira-lean eta larunbatean izan ziren, bai-na beste egun baten beharra zegoela ikusi genuen. Aurten, ostegunean ere izango dituzte jolasak».

Musika emanaldiei dagokienez, orain arteko formula bera mantendu dute. «Gure auzoan kontzertuek baino harrera hobea izan ohi dute musika jartzaileek. Horrela, lau egunetan izango ditugu hainbat DJ», esan du Mendiburuk.

Intxaur krosa

Bigarren urtez jarraian, Intxaur krosa egingo dute datorren asteko Intxaur jaien aurrekari gisara. Bihar izango da, 12:00etan, Ametzagaina parkean, iazko ibilbide berdinarekin. 4,7 kilometro egin beharko dituzte parte hartzaileek, eta aldapa gogorrek izango dituzte bidean. Izen ematea 5 eurokoa da. «Intxaur jaiak iragartzen dituen lasterketa da, gero eta gertua-goa daudelako», dio Mendiburuk. ●

OSTEGUNA 26

Mozorro eguna (pelikulak)

17:00

Petanka eta brillat finalak.

17:30

Haur jolasak.

18:30

Karrokea.

21:30

Txonitxongas DJ-a.

01:00

Musika txosnan.

OSTIRALA 27

17:00

Kingtxa League finala.
Haur jolasak.

18:00

Txupinazoa. Elektrotxorongo.
Buruhandiak eta ur zezenak.

19:30

Sardina jana Intxaurdi elkartean.

22:00

Peyerose x Txiltxoko

23:30

Zezensuzkoa. Bingoa.

00:00

Amaia Normal DJ-a.

LARUNBATA 28

10:00

Bigarren eskuko azoka.
Haur jolasak eta txokolate jana.

11:00

Frontenis finala.

14:00

Herri bazkaria eta bingo musikatua.

17:00

Kuadrilla jolasak.

19:00

Ilargi txaranga. Buruhandiak eta ur zezenak.

22:00

3TTU erromeria.

00:00

Zezensuzkoa. Bingoa.

00:30

La Fulana DJ-a.

IGANDEA 29

08:00

Gaupasero argazkia.

11:00

Karate erakusketa.

12:00

Sagardo dastaketa. Plaza dantzak.
Herri kirolak.

14:00

Mus txapelketa finalak.

16:30

Trapu Zaharra *Azkena eta bagoaz* antzerkia.

17:30

Intxaurgala (*photocall*).

18:30

Joselontxos txaranga.

21:00

Karaokea.

22:00

Panther DJ-a.

00:00

Itxiera ekitaldia.